

Jangela-zerbitzuaren erabilera ekainean

Ekainaren 3tik 21era HHko (3 eta 6 urte bitarte) eta LHko ikasleek eskolak goizez bakarrik izango dituzte, alegia, 9:00etatik 12:30etara bitarte.

DBHko ikasleek, ekainaren 3tik 11ra lanaldi jarraia izango dute (8:25-14:30) eta ekainaren 12tik 21era 8:25etik 12:30era.

Beraz, zuen semeak edo alabak **jangela zerbitzua erabiliko duen edo ez** jakinaraztea beharrezkoa izango da. Horretarako, **maiatzaren 24a** baino lehen, mesedez, idazkaritzan jakinarazi usurbil@ikastola.eus helbidera idatziz.


Bide batez, **etxera bakarrik joateko baimena** duen edo ez ere adierazi.



Arratsaldeko zaintza ekainean

Ekainaren 3tik 21era, Ageri-aldeko eraikinean **goizeko zaintza** egiten den gelan, arratsaldeko **zaintza-zerbitzua** eskainiko da **14:30etik 16:30era**.

Zerbitzuak aurrera egin ahal izateko gutxieneko taldea osatu beharko da. Zerbitzuaren kostua **65 €** izango da. Izena emateko, mesedez [galdetegi hau](#) bete **maiatzaren 24ra arte**.



DBH 4koen jertse eta kamiseten salmenta


Jakin ezazue, datorren **astelehenean**, maiatzak 6, arratsaldeko **16:30ean** Udarregi Ikastolaren parean egongo garela jertseak eta kamisetak saltzen.

Neurri hauek geratzen zaizkigu:

KAMISETAK		JERTSEAK	
5-6 neurria	3 unitate	5-6 neurria	3 unitate
9-10 neurria	Unitate 1	11-12 neurria	Unitate 1
11-12 neurria	Unitate 1	5 neurria	5 unitate

Bertan egongo gara zuen zain.

Bihotz-bihotzez, DBH 4ko ikasleak.



Familia-plana

Maiatzaren 5ean, igandea, ospatuko den **Andatza** egunerako familia-plan baterako gonbitarekin gatoz Zirimarako hezitzaileak. **Deialdia irekia da**, hau da, herriko edozein familiak har dezake parte.

Goizeko 9:30ean elkartuko gara San Estebango plazan denok batera igotzeko Andatzara.

Animatu parte hartzera!



Udako aisialdi-eskaintza

Aurten ere Zirimolak, Ikastolen Elkarteko aisialdi-taldeak, prestatu du [udako aisialdi-eskaintza](#). Euskal Herriko ertz guztietako haurrek uda Zirimolarekin batera gozatzeko aukera eskaintzen dute.

ikastolan bertan eskaintzen diren udalekuak ez dira antolatu Udarrekin.

Izen-ematea maiatzaren 14ra arte dago irekita. [Informazio gehiago...](#)



HAUR HEZKUNTZA

Zirimara-familia

0 eta 5 urte bitarteko haurrak dituzten familiei zuzenduta, **maiatzaren 14an eta 21ean 16:30etik 17:30era**, **Zirimara familiako ATE IREKIAK** egingo dira.

Ekintzan izena emanda ez bazaudete eta bertan parte hartu nahiko bazenute, eman **GAUR** izena [galdetegi hau](#) betez.



LEHEN HEZKUNTZA

Giza papilomaren birusaren txertoaren 2. dosia

Ostegunean, maiatzak 9, txertatzeko baimena duten LH 6ko ikasleei giza papilomaren birusaren kontrako txertoaren 2. dosia jartzera etorriko dira osasun zentrotik.



Irteera-kobrantza LH6

Datorren ostiralean, maiatzak 10, Zuhatzako irteeraren 1. zatiaren kobrantza egingo da. Kostua **35 €** izango da.



LH1 Sarreraren puntualtasuna

Mezu honen bidez, eskatu nahi dizuegu, ikastolara sartzerakoan **puntualak** izatea. Goizetan harrera izan arren, oso garrantzitsua da 9:00etarako bertan izatea eta patioko sarreratik sartzea.

Mila esker eta laster arte!!



Usurbilgo liburutegiko ekintzak

Asteazkenean, maiatzak 8, 18:00etan, Sutegi udal liburutegian, **SOLASALDIA**, Yolanda Arrietaren eskutik: LH5eko eta LH6ko gaztetxoei zuzendutako saioa izango da, eta mintzagai izango dute **Mariasun Landaren GALTZERDI SUIZIDA** liburua, jada eskuragarri duguna Liburutegian. Iraupena: 60-75 minutu.



DBH

Ikasturte amaierako irteerak

❖ DBH3

Datorren astean, **maiatzaren 9an eta 10ean** DBH 3ko ikasleekin ikasturte amaierako irteera egingo dugu Tuterara.

Horren inguruko informazio guztia ikasleen bidez helarazi da etxeetara.



❖ DBH 4

Datorren astean, maiatzaren **7tik 10era**, DBH 4ko ikasleekin ikasturte amaierako irteera egingo dugu Bartzelonara.

Horren inguruko informazio guztia ikasleen bidez helarazi da etxeetara.

Zientzia-azoka

Bihar larunbata, Usurbilen ospatuko den Zientzia-azokan Udarregi Ikastolako DBH-ko ikasleek ere parte hartuko dute.



Lanbide Heziketan aurrematrikula egiteko epea

Maiatzaren 6tik 24ra, Lanbide Heziketan 2024/25 ikasturterako aurrematrikula egiteko epea izango da.